

EUSKARA ARDATZ

Euskarazko Wikipedia munduko 31. postuan

Euskaraz ere badago Wikipediarik, eta indartsua da gainera: 278.000 artikulua ditu eta, kopuruari dagokionez, mundu mailan 31. postuan dago. Beraz, milioika hiztun eta estatu propioa duten beste hizkuntza batzuek baino dinamismo handiagoa dauka.

[Albiste osorik](#)

« Euskararen bizi puskak », Patxi Saezen iritzi artikulua

Gaur egun, euskarak dituen hiztun gehienen pentsamendua eta unibertso sinbolikoa erdaratik eraikita dago. Euskarak dituen hiztunetatik %80 berbadun berriak dira, erdara dute etxeko hizkuntza eta, nagusiki, erdararen zimentarrian egina dute lehen sozializazioa.

[Albiste osorik](#)

Herrietako kale neurketen txostenak eskuragarri

Udalen eskariz, duela 15 egun hasi zen Soziolinguistika Klusterra Hizkuntzen kale-erabileraren neurketa berezietako emaitzak aurkezten, eta harrera oso ona izaten ari da.

[Albiste osorik](#)

Mapa ezagun eta koloretsua



Euskal Herrian lau hizkuntza izan dira nagusi mendeetan: euskara, gaztelania, frantsesa, eta garai batean hedatuago zegoen gaskoia.

Badihardugu euskara elkarteak, ordea, bertzelako errealitate bat bistaratu du, 99 hizkuntza zenbatu baititu Euskal Herriko karrketan. «Eta, urtetik urtera, gero eta gehiago dira», erran du Idoia Etxeberria Badihardugu elkarteko kideak. Izan ere, etorkinek, etorkinen ondorengoek eta bisitariak dozenaka kolore gehitu dizkiote Euskal Herriko hizkuntzen mapari. «Ez gara konturatzen, baina hizkuntza asko ditugu inguruan».

Etxeberriaren ustez, euskara ikasteko zailtasunaren «mitoa» da bat, Euskal Herriko karrketan dagoen hizkuntza aniztasunak bertzelako ikuspegi bat ematen baitu. «Errusiar batek esan zigun: 'Zaila dela? Has daitezela errusiera ikasten'». Elkarrizketatu anitz euskarara hurbildu dira, «behetik gorako» transmisio batekin; hau da, bertako hizkuntza seme-alabengandik jasota. «Gero eta ikasle gehiago ari dira euskaraz ikasten, eta kontuan hartzeko faktore bat da».

[Albiste osorik](#)